

## BBV eta Iberdrolak holding industrialia diseinatu dute

BILBO

Banco Bilbao Vizcaya (BBV) eta Iberdrola konpainiak holding industrialaren diseinua bukatu dute. Biek osatuko duten Zerbitzu eta Teknologia Korporazioak guztira 28 enpresa bilduko ditu.

Bilboko finantz erakundeak hamabost enpresatan dituen partaidetzek eta konpainia elektrikoak ere beste hamahirutan dituen osatuko dute holding hau.

Zerbitzu eta Teknologia Korporazioa izango denaren 'hazia' lehengo Iberduerok sortu zuen Proindesa enpresa litzateke.

Honek aldaketa sakonak izango ditu industri holding berria bilakatzeko. Horrela, BBVk Proindesaren akzioen % 50 bereganatu ditu eta enpresa honen kapital soziala 44.200 milioi pezeta ingurukoa izatera iritsiko da.

## Eroski-Leclerc elkarte deuseztu dute

BILBO

Eroski euskal kooperatibak Frantziako Leclerc konpainiarekin erdi bana sortutako ACEL elkarte deuseztu egingo dutela jakin erazi zuen atzo.

Erabaki hau frantziar eta euskal sozietateek hartu dute, «Acel sortu zenean planteatu ziren helburuak betetzeko sortutako zailtasunen aurrean», euskal kooperatibak adierazi duenez.

Halere, Eroskik zehaztu du harreman haustura honek ez duela galaraziko etorkizunean elkarlanean aritzea, «banakuntzaren merkatuan kompetitiboagoak izateko».

Duela urtebete Eroskik eta Leclerc sinatu zuten akordioaren helburua Europako hornitzaile eta fabrikatzaileekin negoziatzea zen, produktuak erosteko abantailak lortzeko asmoz.



Jon Larrinagak euskal industriaren hazkunde moteltzea azpimarratu du.



## EAEko ekonomiak % 2,5eko hazkundera lortu zuela esan du Jon Larrinagak

Industriaren salmenten murrizketak eragin du atzerakada hazkunderan

**E**uskal Autonomi Elkarteak ekonomiaren hazkundera % 2,5ekoa izan zen 1991. urtean, Espainiako ekonomiarena bezalakoxea, Jon Larrinaga Eusko Jaurlaritzako Ekonomia sailburuak atzo emandako datuen arabera. Ekonomi hazkundera iaz mantsotu bazen ere, honek ezkortasunik ez duela sortarazi behar adierazi zuen sailburuak.

GASTEIZ

Datu horiek erakusten dute, Larrinagaren ustez, euskal ekonomiaren hazkundera etorkizunean % 2 eta % 2,5 bitartekoa izango dela, aurreko urteetan (1986tik 1990era bitartean) izandako % 3-4ekoa baino txikiagoa.

Halere, gizarteko sektore batzuetan nabaritzen den ezkortasunik zentzurik ez duela ziurtatu zuen Larrinagak. «Aitzitik, iazko urtearen gai-

✓ Gizarteko sektore batzuetan nabaritzen den ezkortasunik zentzurik ez duela ziurtatu du Larrinagak.

neko datuek ez dute ikuspegi katastrofistatik eskaintzen —adierazi zuen— orain arteko ekonomiaren hazkunderaren mantsotze arin bat baizik».

Atzerako joera hau 1989. urteko bigarren erdialdean hasi zen industri sektorearen krisiak eragin du. Halere, aurreko urteetan ez bezala, ekonomiaren hazkundera motel honek ez omen du eragin EAEko Barne Produktu Gordinaren murrizketarik.

EAEko ekonomiaren bilakaera honetan, industria sektoreak Estatuari egindako salmentaren beherakada izan da gehien eragin duena. Honetan Espainiako industriaren egoera txarra ere eragin omen du,

«geure bitarteko ondasunen bezero nagusia delako».

Bestalde, atzerira egindako salmentak ez zuen atzerakada hau konpentsatu, areagotu baizik.

### ENPLEGU SORRERAREN BILAKAERA

Eraikuntza alorrak, ordea, lan publikoaren bolumenari esker bereziki, eta zerbitzu sektoreak bilakaera positiboa izan zuten iaz, aurreko urtekoa baino txikiagoa izan bazen ere, eta «1991ko industriaren balantze okerra konpentsatu du».

Euskal ekonomiaren hazkunde txikiarekin batera, lanpostu ugalketa ere gutxitu egin dela dio Eusko Jaurlaritzaren txostenak, nahiz eta enpleguen sorrerak % 2,6ko hazkundera izan zuten.

Honetan, industri enpleguen murrizketa da azpimagarria, % 5,9koa izan zen eta. Eraikuntza eta zerbitzu alorretan, ordea, gehitu egin zen enplegu sorrera, % 14,8 eta % 6 hurrenez hurren.

## Nafarroako UGT eta CCOO Renferen Birmoldaketa Planaren aurka daude

TX.S. / IRUÑA

Nafarroako UGT eta CCOO sindikatuen Garraio eta Telekomunikazio Federazioek gogor kritikatu dute Renfe enpresak 1992-93 urteetarako prestatu duen Birmoldaketa Plana, baita trenbideak jasaten ari diren nariadura ere, bai Estatuan, bai Nafarroan.

Birmoldaketa Plan horrekin plantila asko murriztuko dela eta trenbideko instalazioen egoera okertuko dela diote sindikatuak ordezkariek. «1986. urtetik hona ezkurtuko birmoldaketa izan dugu, eta plantilaren % 27 murriztu dute urte hauetan».

1992-93 urteetako Planarekin Estatu osoan 10.000 lanpostu ezabatuko dira, eta Nafarroan 100 langile geratuko dira lanik gabe. Herralde honetako plantilak, horren ondorioz,

404 langile izango ditu. «Murrizketa honek kalte handiak ekarriko ditu trenbide geltokietan, eta eskaintzen den zerbitzua gero eta txarrago izanen da», adierazi zuen Geronimo Altza Lopez UGT sindikatuko ordezkariak.

Egungo zerbitzua nahiko txarra bada ere, hemendik aurrera gauzak okerrago joango direla gaineratu zuen.

### TREN ZAINZAILEAK DESAGERTUKO

Renfe enpresaren jokabidea tren errentagarri indartzea da, erregionalen kalterako. «Murrizketa hauekin geltoki batzuk itxi egin beharko dira, eta inguruko tren batzuk ere kenduko dituzte», azaldu zuten.

Hiri handiko inguruetako trenak indartuko dituztela bakarrik, diote, errentagarriak direlako, Madril, Bar-

## Munduko ekonomiak behera egin du NBERen arabera

NBE

Munduko Produktu Gordinak (MPG) eta munduko diru sarrerak murriztu egin ziren 1991n, Bigarren Mundu Gerratik lehenengoz, Nazio Batuen Erakundeko (NBE) Ekonomia eta Gizarte Batzordeak egindako txostenaren arabera.

Aipaturiko batzordeak Europako ekialdeko estatu ekonomien erorketa «gogorra» azpimarratzen du, «honek Txina, Japonia, Hegoamerika eta Asiako zenbait herrialdeen ekonomia dinamikoaren ondorio positiboak neutralizatu» dituela gaineratuz.

1991ko abenduaren 16ko data daukan txostenak jasotzen duenez, «munduko ekonomiaren beherakadan ezinbesteko eragina izan du gertakari guztien batuketak, hauen artean gerora SESBen desegitea ekarri dutenak».

### AURTEN HOBEKUNTZA HASIKO DA

Txostenean agertzen denez, «herrialde industrializatutako askotan 1990ean hasi zen iharduera ekonomikoaren gainbeherak 1991ren lehen sei hilabeteetan ere segitu du». Azterketa honen arabera, herrialde hauen ekonomien erreperazioa 1992aren bigarren erdian hasiko litzateke, «gutxinaka baina munduko gainontzeko ekonomiari bultzada emanez».

Merkatu ekonomia daukaten estatuetako ekonomi beherakada, 80ko hamarkadaren bukaera aldera inflazioa geldituz eratzeko egindako «moneta politika murrizkorrek» eragin zuten NBEko kideen iritziz. «Batzuek inflazioa gutxitzea lortu bazuten ere, beste batzuentzat ekonomi arloan atzerapausua eman zen neurri hauekin» azaltzen du txostenak.

Hegoamerika eta Caribe aldeko ekonomiari dagokionez, azterketak jasotzen duenez 1991n % 2 baino gutxiago hazi zen bertako produktu gordina, aurreko urtean izan zuten % 0,7ko jaitziera gogoratuz.

## Sidenor eta sindikatuak plana negoziatzen hasi ziren atzo

M.A. / BILBO

Acenor eta Foarsa altzairu berezien enpresak biltzen dituen Sidenorreko arduradunak eta ELA, UGT, CCOO eta LAB sindikatuetako ordezkariak bildu ziren atzo arratsaldean Madrilen, holdingeko zuzendaritzak proposatzen duen bideragarritasun plangintza negoziatzeko.

Bideragarritasun plangintza ez dute sindikatuak onartzen, Acenorrek Hernani eta Laudion dituen lantegiak itxi eta 3.500 langileez osaturiko plantilatik 1.690 lanpostu murriztea jasotzen duela beste neurri batzuen artean.

Bilera aurretik Acenorreko enpresa batzordeko iturriek EGUNKARIARI adierazi ziotenez, «trantsizio bilera da hau. Bertan

minimo batzuk ezarriko dira, baina egia esan sindikatuak apartatzeko gauza handirik ez daukate, planaren kontrako jarrera behin eta berriro azaldu bait dute».

Iturri berberen arabera, «bile-rarekin negoziatzei hasiera ematen zaie, Ministeritzaren aurrean Acenorrentzako dirua ematen jarraitzea nolabait justifikatzeko». Era berean, langileen ordezkarien iritziz, plangintza bera onartu aurretik zenbait neurrien bitartez martxan jartzen hasia da, «eskariak lantegi batetik bestera pasatuz, esaterako».

Sindikatuak Acenorren lantegitako mantentzea eskatzen segituko dutela adierazi dute. Plantilari dagokionez, planean jasotzen den murrizketa «gehiegizkoa» iruditzen zaie sindikatuak.

celona, Sevilla eta Bilbo ondokoak hain zuten.

Sindikatuak kritikatu zuten, «enpresa pribatuaren eskuetan dago txartelen salmenta, eta birmoldaketa honekin trenbideak zaintzen dituzten langileak desagertuko dira, honek ekarriko duenarekin».

Dagoeneko Nafarroan kendu dute fardelak fakturatzeko zerbitzua geltoki gehienetan, eta Iruña, Tuter, Altsasu eta Tafallako geltokietan soilik egin daiteke.

Europar trenbidearen modernizazio lanetan ari direla azpimarratu zuten, «hemen, berriz, autobidearen sarea handitzen ari dira, trenbidearen kalterako, Abiadura Handiko Trenak ezik». Birmoldaketa Plan honen aurka daudela azaldu zuten, eta Renferen politika aldatzeko bide legal guztiak erabiliko dituztela gaineratu zuten.